

2015eko Azaroaren 10an, arratsaldeko 18.00tan Udaletxeko pleno aretoan, Gezala-Basauntz-Basarteko auzobatzarrari hasiera emoten zaio. (Guztira 11 pertsona. 6 zinegotzi) Lehenengo eta behin alkateak 2011. urtetik hona auzoan egon diren eskaeren berri eta eginda dauzen eta pendiente dagozen proiektuen aurkezpena egiten dau:

**Egin gabe gelditu direnak**

- Azera ,argindarra eta gasa sartutea. Oinezbidea auzora.
- Badem bat jartzea igorrebasorantza.Biondagaz diputazioak kunplidutzat emoten dau
- Iurgorriko urteeran bisibilidadea kentzen daben arbolak ebagiteko eskaera.
- Uxarreko uren kanalizazioa. Asfaltoa.
- Zubutzurako zubian hormigoien jaitsiera.
- Argiztapen linea jartzeko aurrekontua 32.250€ (auzokoari lurra eskatu behar eta foru aldundiko baimenak)
- Bide bazterren garbiketa hobetzea. Momentu honetan dana ein ostean kontroletan da, komeni litzateke (gehiautan egitea eskatzen da).
- Plazako merenderuen ondoan sue eiteko lekue ipini.

**Auzotarrak hartzen dabe berbea:**

- Igorrebasoko bidean bide bazterren garbiketa ez dala egiten esaten da, bidea eta uran kanaloian artean be bedarra hasten dala. Sarriago egin beharko litikela eta egiten dala ziurtatutea.
- Iparragirren etxean parean dagoen lur jaustea San Antonio bueltan bakarrik garbitzen dala esan da.
- Biondan inguruen diputazioak emandako erantzuna teknikamente zuzena izingo dala baina praktikan ez dauela arazoa konpotan aipatzen da. Orain gainera trafiko handia dagoela aipatzen da (pertsona eta kotxe eta kamioiena).
- Zubiaren barandillea (pinudie ataraten ibili zirenean) jausite dau kamioi batek golpea emonda dauelako.
- Berdaskotarran etxera doan lehenengo kurbak peraltea txarto deko (batezbe goitik beherantza) eta espiluek ipini beharko litikez gorago ez dalako ikusten.
- Basartetik elexalderantza (eleizara kasik) farola bardinek egonda batzuk argi beilegie emoten daurie eta besteak zurie, beilegidunak ez dire ondo ikusten
- Telefonoagaz/internetegaz arazoak dekiaz (fibrarik eta ez dekienez...)telefonikagaz arazoak eukiten dauriez.
- Azeran kontue egiteko inkestatan baiezkoa urteteari
- Kz gunean: monitorea hamabostetik behin bakarrik dau (goiz/arrastiz) eta IT txartela azterketak ezin dire egin. Arrati mailako eskaera izan beharko litzateke
- Belenen etxean parean argie tapeute dauela zuhaitzakgaitik, norberak ala udalak emon behar dauen kontue holango gauzetan komentetan da.
- Buzoiatan bedarra sartzen da eta aurtan karterueri suge batek auzi ein dotsela komentetan da.
- Basarte elexalde barik basarte auzoa izin beharko litikela aipatzen da. Elexaldeko zenbakien banaketa txarto.
- Aliaa aldatzean gora igokeran ezkerretik datozen kotxeak ikusteko ispilue. Batezbe rotondan obrak hastean. Eleizatik bera doan bidea rotondara bi norabidekoa izitea aztertutea.
- Plan generalean ormazabaletik basartera bide bat ez egoan galdetzen da, eta firestone ondoan gasolinera bat aurreikusten zala.

-Boca de riego lgorrebason

-Untxurtun quitamiedos antzeko batzuk edurre danean-izotza.